


Bibliobusa Lizarraldea



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Zer da bibliobusa?

Liburutegi mugikorra da, eta liburutegi tradizional batek ematen dituen zerbitzu gehienak eskaintzen ditu. Sei ibilbide egingo ditu, eta bi astean behin herri bakoitzean geldituko da. Bibliobusa biztanle guztientzako baliabide eta informazio, ezagutza eta kulturarako sarbide gune bihurtzeko asmoarekin sortu da, landa-ingurunean aukera-berdintasuna sustatuz.

Zein zerbitzu eskaintzen du?

- Informazio eta kontsulta
- Nafarroako Liburutegi Publikoen txartela ematea
- Dokumentu mailegua (liburuak eta DVDak)
- Aldez aurretik eskatuta, bibliobusaren funtsako eta Nafarroako beste liburutegietako dokumentuen mailegua
- Dokumentuak etxetik eramateko aukera
- Plataforma digitaleetan sarbidea: eBiblio (liburuak), infoMagazine (aldizkariak), eFilm (filmak) eta Nafarroako Liburutegi Digitala
- Kultur jarduerak programatzea eta egitea

Zergatik Lizarraldean?

Nafarroako Liburutegien Sarea 93 liburutegik osatzen dute, 83 udalerritan daude, eta Nafarroako biztanleen % 90i ematen diote zerbitzua. Bibliobusak kultura-zerbitzuak herritarren beste % 10 horretara zabaldu nahi ditu, hau da, udalerririk txikienetara eta lurralde hustuenetara. Lizarraldeak herri horietako asko biltzen ditu, eta, beraz, zerbitzu hori abiatzeko lurralderik egokiena da.

Ibilbideak

Deierrri Abartzuza, Lezaun, Errezu, Bearin
Urederra Zudaire, San Martin, Eulate, Bakedao
Trenbidearen Bidea Antzin, Zuñiga, Acedo, Legaria, Murieta
Jurramendi Deikaztelu, Arellano, Morentin, Muniain, Aberin
Kodes Mues, Torres del Rio, Desojo, Esprontzeta, Bargota, Lazagurria
Done Jakue Bidea Bilatorta, Larrion, Iguzkitza, Lukin

Bibliobusa zenbakitan

900 dokumentu (liburuak eta DVDak) baino gehiago barruan
6 ibilbide, **28** herri zeharkatzen dituztenak, **6.600** biztanlerekin
3.000 dokumentu baino gehiagoko hasierako funtsa
Maileguetarako **45** eguneko epea
1.600 kilometro baiho gehiago hilabetero
Helburua: **8.000** dokumentuko bilduma



Telefonoa / Whatsapp **626 676 085**

Posta elektronikoa bibliobus@navarra.es

Gure web gunea

www.bibliotecaspublicas.es/navarra-bibliobus

Sartu **abarka**-n, Nafarroako Liburutegien

Sareko katalogoa: <https://abarka.navarra.es>

Jarraiguazu sareetan

